**5.- Propuesta de aprobación del Convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Errenteria para la integración del transporte urbano de Errenteria en el Billete Único.**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuak Udal honi bidali dio lankidetza hitzarmen zirriborro bat, Errenteriako herri barneko garraio publikoa txartel bakarrean integratzeko.

El Departamento de Movilidad e infraestructuras viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa ha remitido a este Ayuntamiento un borrador de Convenio de Colaboración para la integración del transporte público urbano de Errenteria en el Billete Único.

Errenteriako Udalak uste du bidaiarien hiri garraio zerbitzua txartel bakarraren sisteman integratzea herri horretako herritarren mugikortasuna hobetzeko tresna izango dela, beste garraio sare eta motetan erabilgarria denez, erraztu egingo duelako bertan bizi, lan egin edo ikasten dutenen mugikortasuna.

El Ayuntamiento de Errenteria considera que la integración de su transporte urbano en el Billete Único constituye un instrumento que va a mejorar la movilidad de la población en ese municipio, ya que por su interoperabilidad con otras redes y modos de transporte, va a facilitar los desplazamientos de las personas que viven, trabajan o estudian en el mismo.

Udal kontu-hartzaileak honi buruzko txostena egin du 2012ko otsailaren 8an.

El Interventor Municipal ha emitido informe económico al respecto con fecha 8 de febrero de 2012.

Era berean, bai Udal aholkulari juridikoak 2012ko otsailaren 13an eta baita Udaltzaingoko ofizial-buruak 2012ko otsailaren 10ean ere, Hitzarmena sinatzearen aldeko txostenak egin

Asimismo, la Asesora Jurídica y el Oficial Jefe de la Policía Local han emitido informes favorables a la aprobación de dicho Convenio con fechas 13 de febrero y 10 de febrero de 2012,


C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

dituzte.

Trafiko eta Garraio Batzordearen proposamenez,

Udalbatzak, aho batez,

**E R A B A K I D U**

1.- Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Errenteriako Udalaren arteko lankidetza hitzarmena, Errenteriako herri barneko garraioa txartel bakarrean integratzeko.

2.- Onartzea txartel bakarreko inbertsioak eta gastuak, Udalari dagozkionak, egungo herri garraio publiko zerbitzuaren enpresa-kontzesionarioak, hots, Herribus S.A.-k, zuzenean egitea, eta ondorengo konpromisoa hartzea: urteko udal aurrekontuetan Kontu-hartzailearen txostenean jasotzen diren inbertsio eta gastuei aurre egiteko beharrezko diru-kopuruak txertatzeko.

3.- Alkatea ahalmentzea, zuzenbidean bidezkoa den neurrian, Errenteriako Udalaren izenean Lankidetza Hitzarmen hori sinatzeko, eta honako akordio hau eraginkorra izan dadin gauzatu beharreko egintzak gauzatu eta behar diren dokumentu publiko zein pribatu guztiak eman ditzan.

**6. Errenteriako Ezkerra udal taldearen mozioa, Mari Carmen Marquez Perez familiaren kaleratzea gelditzeko eskatuz.**

respectivamente.

A propuesta de la Comisión de Tráfico y Transportes.

El Pleno de la Corporación por unanimidad.

**A C U E R D A**

1.- Aprobar el Convenio de Colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Errenteria, para la integración del transporte público urbano de Errenteria en el billete único.

2.- Aprobar que las inversiones y gastos del billete único, que corresponden al Ayuntamiento, las realice directamente la actual empresa concesionaria del servicio de transporte urbano de viajeros de Errenteria, Herribus, S.A, y adquirir el compromiso de incluir en los presupuestos municipales anuales los importes recogidos en las tablas de inversiones y gastos del informe del Interventor, para hacer frente a los mismos.

3.- Facultar al Sr. Alcalde, tan ampliamente como en derecho se requiera, para que en nombre y representación del Ayuntamiento de Errenteria firme dicho Convenio de Colaboración, realice los actos y otorgue cuantos documentos públicos o privados sean necesarios para dar efectividad al presente acuerdo.

**6.- Moción presentada por el Grupo Municipal Errenteriako Ezkerra pidiendo la paralización del desahucio de la familia de Mari Carmen Márquez Pérez**



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

Idazkariak ondorengo mozioa irakurri du, zeinak hitzez hitz zera baitio:

Leída por el Sr. Secretario la siguiente moción que literalmente dice:

"Otsailaren 7an Mari Carmen Marquezi Donostiako 8 zenbakiko Lehen Auzialdiko Epaitegiaren erregu bat jakinarazi zitzaion. Horren arabera hilabeteko epea ematen zitzaion bere gurasoen ohiko etxebizitza dena boluntarioki libre utz dezaten, eta, hori egin ezean, "indar publikoak" erabiliko direla adierazi zitzaion.

"El pasado 7 de febrero a Mari Carmen Márquez le fue notificado un exhorto del Juzgado de Primera Instancia Nº8 de Donostia, por el que se le establecía el plazo de un mes para desalojar de formar voluntaria la vivienda habitual de los padres de la citada persona. Caso contrario se señala el recurso a la "fuerza pública".

Egoera horren aurrean, ERRENTERIAKO EZKERRA udal taldeak Udalbatzari proposatzen dio har dezan ondorengo

Ante esta situación el grupo municipal de ERRENTERIAKO EZKERRA propone al Pleno del Ayuntamiento de Errenteria el siguiente

**AKORDIOA**

1. Errenteriako Udalak elkartasuna adierazi nahi die Mari Carmen Marquez eta kaleratuak izateko arriskuan dauden bere senitartekoei.

2. Errenteriako Udalak Donostiako 8 zenbakiko Lehen Auzialdiko Epaitegiaren jarrera deitoratzen du; izan ere, uko egin dio prozeduran betearazpeneko alderdia ordezkatuko duten abokatu eta prokuradorea izendatu arte prozedura hori eteteari. Gure ustez, erabaki horrekin hipoteka exekuzio batek eragindako familien defentsa eskubidea urratu daiteke.

3. Errenteriako Udalak Kutxabankeko zuzendaritzari eskatzen dio kaleratzeko prozesua geldiarazi dezan. Era berean, bidezkoa iruditzen zaigu aipatu banku entitatearen eta eragindako pertsonen artean negoziazioa abian jartzea, bi aldeentzat egokiak izan daitezkeen akordioak lortzeko asmoz.

**ACUERDO**

1.- El Ayuntamiento de Errenteria muestra su solidaridad con Mari Carmen Márquez y su familia amenazada de desahucio.

2.- El Ayuntamiento de Errenteria lamenta la actitud del Juzgado de 1ª Instancia nº 8 de Donostia al negarse a la suspensión del procedimiento hasta la asignación de abogado y procurador que representen a la parte ejecutada en el mismo. Con esta decisión consideramos que se puede vulnerar el derecho de defensa de las familias afectadas por una ejecución hipotecaria,

3.- El Ayuntamiento de Errenteria solicita a la dirección de Kutxabank la paralización del proceso de desahucio, a la vez que consideramos oportuna la negociación entre dicha entidad bancaria y las personas afectadas cara a la consecución de acuerdos satisfactorios para ambas partes.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

4. Akordio hauek Kutxabankeko zuzendaritzari eta Donostiako 8 zenbakiko Lehen Auzialdiko Epaitegiari jakinaraztea".

Ondoren, mintzatu dira:

* Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) esan du iragan azaroan Udalbatzak kontu honi buruzko mozio bat onartu zuela, nahiz eta testuan aipamen generikoa egiten zen kaleratze-arazoari. Haatik, 2012. urteari begira esan dezakete une honetan badirela 135.000 familia kaleratze-arazo honi hipoteka-exekuzio bidez aurre egiten ari direnak. Eta aurreikuspenen arabera, 2012. urtean zehar hipotekari aurre ezin izango diotenak beste 133.000 izango direla diotenez, batuketa egin eta gero, 260.000 familia izango direla egoera kezkagarri horretan diote. Argi dagoen moduan zifra hauek eskuartean dituztela, ezin dute soilik une honetan egoera horretan dagoen baten arazo pertsonaltzat jo, arazo txiki bat edo arazo handi batez hartu, argi dagoen moduan, gizartearen arazotzat baizik. Eta gizartearen arazo horrek forma hartzen ari du, zehazten ari da eta hurbilago ikusten ari gara. Bere iritziz, denak, 21 zinegotziak, datoz bat Errenterian erretiraturiko bikote batek duen arazo soziala dela, izan ere, 73 urteko emakumeak elbarritasun handiak ditu, eta 76 urteko gizonak, berriz, medikuaren beharra du, honek ere arazoak dituelako. Hori kaltetuei dagokionez, baina protagonista den beste aldeak ere, bere iritziz, kontua eramaten ari den bezala, uste du arazo soziala sortzen ari dela. Eta arazo soziala da publiko izaerako erakunde finantzarioak etxebizitzaren tasazio-balioaren % 60ko balioarekin eskuratu nahi duelako. Horrela, entitateak berak 172.000 €-tan baloraturiko etxebizitza, ziur aski, erakunde horrek 132.000 €-tan eskuratuko du.

4.- Trasladar estos acuerdos a la dirección de Kutxabank y al Juzgado de Primera Instancia nº8 de Donostia.

Se producen las siguientes intervenciones:

*Interviene el Sr. Ferradas (Errenteriako Ezkerra) señalando como en el pasado mes de noviembre se aprobaba en este Pleno una moción en relación a esta cuestión. El texto era una referencia genérica al problema de los deshaucios y siguiendo con cuestiones genéricas pero ya hablando en referencia al 2012 cabe decir que 135.000 familias en este momento están afrontando un problema de desahucio, de ejecución hipotecaria y las previsiones hablan de otras 133.000 que no van a poder hacer frente a su hipoteca a lo largo de este 2012 con lo cual sumando salen 268.000 familias en una situación cuanto menos preocupante. Evidentemente con estas cifras no cabe hablar única y exclusivamente de un problema personal, de un pequeño problema o de un gran problema para el que lo está viviendo en estos momentos, sino evidentemente están ante un problema social. Y ese problema social, va tomando forma, va tomando concreción y nos toca mas de cerca. Entiende que todas y todos los 21 concejales comparten el deseo de que una pareja de pensionistas en Errenteria tiene el carácter de problema social, sobretodo cuando la mujer es de 73 años con severas minusvalías y el señor de 76 años con problemas de naturaleza médica. Eso en cuanto a los afectados pero también en la otra parte protagonista entiende que la forma de abordar estas cuestiones está generando un problema social y un problema social es que una entidad financiera de carácter público se intente quedar con una vivienda por el 60% de su valor de tasación. Una vivienda tasada en 172.000 € por parte de la propia entidad.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

Horrek, gutxienez beretzat, izen bat du, bakoitzak egokiena ikusten duena jar biezaio, gaineratu du. Edonola ere, bere aburuz, arazo sozial hauen aurrean Udalak ez dezake ez ikusiarena egin, gutxienez okerren pasatzen ari direnei elkartasuna adierazi behar dielako. Bere iritziz, gauzak beste modu batera egin daitezkeela esateko ahalmena eta obligazioa dute, are gehiago oraingoz alde batean dagoena izaera publikoko banku-erakundea denean. Bere taldeak aurkeztuen duen mozioari dagokionez, esan behar du bezperan, hilak 27, Donostiako 8 zk.eko Lehenengo Instantziako Epaitegiak tramite-lanak etenda utzi zituela pertsona horiek laguntza juridikoa doan izateko eskubidea aitortu edo ukatzen zaien arte, eta ondorioz, mozioaren bigarren puntuak -etenaldia zentzu batean edo bestean ebazten ez den bitartean- ez du zentzurik, hain zuzen Udalak zentzu horretan bertan erabakiren bat hartzeak ez duen moduan. Beraz, bigarren puntua kenduta, mozioa hiru puntutan geratuko litzateke, eta laugarren puntuan Epaitegiari buruz egiten zen aipamena, halaber, kenduko luke.

Posiblemente, esa entidad se va a hacer propietaria de ella por un valor de 132.000 €, eso tiene un nombre al menos para él y que cada cual le asigne el que considere mas oportuno. En todo caso entiende que cuando son problemas sociales de este tipo el Ayuntamiento no puede mirar para otro lado y lo mínimo es mostrar solidaridad con quienes peor lo están pasando. Piensa que tienen la capacidad y el deber de decir que las cosas se pueden hacer de otra manera y más cuando una de las partes es una entidad bancaria de capital público, al menos de momento. En relación con la moción que presenta su grupo, hay que decir que ayer día 27 se notificó a las personas interesadas por parte del Juzgado de Primera Instancia nº 8 de Donostia la suspensión del trámite hasta que se reconozca o deniegue el derecho a asistencia jurídica gratuita a estas personas. Entiende por tanto que en la medida en que no se resuelva la suspensión, en un sentido o en otro, no tiene sentido que el Ayuntamiento se pronuncie sobre ese punto. El dejaría la moción reducida a tres puntos con la supresión del segundo y en el punto cuarto también suprimiría la referencia que se hacía al Juzgado citado.

* Herzog jaunak (PP) esan du kasu jakin baten aurrean daudela, baina berori izugarrizko arazo sozial baten iceberg izotz-punta baino ez dela. Eurek Zuzenbide eta Legearen Estatuan daudela esan behar dute. Izan ere, Alderdi Popularra jabeturik baitago orain bizitzen ari diren garaietarako indarrean dagoen araudia oso estua dela, eta ahulenei kalteak eta sufrimenduak eragiten ari zaiela, baina gobernuan soilik bi hilabete badaramate ere, egoera horri lehentasun osoa ematea erabaki dute. Horrela, denek ikusi dute, PSOEren gobernuak urte hauetan ez duelako soluziobiderik aurkitu, eurek sartu bezain laster azken proposamenekin zerga-pizgarriak eskaini dituztela hipotekaturiko ondarearekin zorra

*Interviene el Sr. Herzog (PP) diciendo que están ante un caso puntual y se manifiesta la punta del iceberg de un enorme problema social. Lo que ellos tienen que decir es que están con el Estado de Derecho y la Ley. En el Partido Popular son conscientes de que la normativa vigente ahora es extremadamente rigurosa en un tiempo de crisis como el que viven y está ocasionando perjuicio y sufrimiento a los mas débiles, pero llevando tan solo dos meses en el gobierno han considerado una prioridad absoluta aliviar esta situación. Todos han visto que no hay una solución con el gobierno del PSOE en estos años pero nada mas entrar ellos con las últimas propuestas están ofreciendo incentivos



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

kitatu ahal izateko, eta kaleratzeak eman aurretik bi urteko epe bat ezartzeko proposamena egin dute. Izan ere, eurek ezin dute legez derrigortu ordainetan emaniko ondarearekin zorra kitatu dadin, hain zuzen legeak ezin daitezkeelako atzeratu, ez daitezkeelako joko-arauak aldatu partidu erdian, eta garai batean sinatu zena legezkoa zenez, halaxe izaten jarraitzen duelako. Horrela, dagoena hartuta, eurek ziur daude juizio-prozesua zuzena dela, eta horregatik egin dezaketen gauza bakarra, eta egiten ari direna, bankuek euren gogoz akordiora irits daitezen pizgarriak eskaintzea da. Kasu zehatz honetan, berriz, kaleratua izango den herritarraren alde daude, eta beraz, aldeko bozka emango dute.

fiscales a las entidades bancarias para que acepten la dación del bien hipotecado para saldar la deuda y han propuesto establecer un plazo de dos años antes de que se produzcan los desahucios. Ellos no pueden obligar por Ley a aceptar la dación del bien para saldar la deuda porque las leyes no pueden ser retroactivas, no se pueden cambiar las reglas del juego a mitad del partido y lo que se firmó en un momento era legal y sigue siéndolo. Están seguros de que el proceso judicial es correcto aveniéndose a lo que existe, pero lo único que pueden hacer y hacen es ofrecer incentivos para que las entidades bancarias se avengan voluntariamente a ello. En este caso en concreto, están desde luego a favor de la vecina que va a ser desahuciada y votarán a favor.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du aurreko osoko bilkurara kaleratze-arazoa ekarri zenean eurek adierazi zuten beharrezkoa zela legedi-sistema aldatzea kaleratze-prozesu hauei eragingo lioken gauza guztietan. Berak orain ez du orduan adierazitako argudio guztiak errepikatzeko asmorik, alabaina esan nahi du eurek ez zutela ordainetan ematea soluziobide bakartzat hartzen, beste kontu batzuek ere kontuan hartu behar zirela uste zutelako. Euren ustez, kasu bakoitza berezia da eta hainbat arazoetatik eratorria izaten direnez, konponbideak ere halakoxeak izan behar dute. Aurreko osoko bilkuran, halaber, Ferradas jaunak eskatu zion berak Kutxan duen ordezkaritzaren baitan egin zitzan egin beharrekoak eta berak eman zitzaion agindua betetakoan esan dezake informazio modura Kutxabanken alderdi politiko guztietako ordezkariekin batzorde bat sortu dutela, eta obra sozialaren aldetik diru-funtsa garrantzitsua jarriko dute mota horietako egoerei aurre egin ahal izateko. Horretan lanean ari badira ere, zorigaitzez ez dira kasu honetarako garaiz iritsiko. Alabaina berak izan dituen elkarrizketetatik ondorio bat atera du eta kasu hau bere jatorrian zein

*Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que la vez anterior cuando se trajo a colación a este Pleno el tema de los problemas de los desahucios a nivel genérico, se posicionaron en la necesidad de abordar una modificación del sistema legislativo en el mas amplio sentido del término en todo aquello que afectara a estos procesos de desahucio. No va a repetir todos los argumentos establecidos, pero si decir que no circunscribían la solución única y exclusivamente a la dación en pago sino que entendían que había que considerar otras cuestiones, cada caso es singular y proviene de problemas diversos y las soluciones también son diversas. En la sesión plenaria anterior se le requirió por parte del Sr. Ferradás para que hiciera la gestión ante kutxa en la representación que ostenta y después de cumplir con el mandato que se le dio, tiene que decir y a modo informativo para que conste que desde kutxabank se ha creado una comisión de todos los grupos políticos donde desde el punto de vista de la obra social se va a dotar de un fondo importante para hacer frente a situaciones de este tipo. Lamentablemente se está trabajando en

ondorioetan aztertu eta gero, esan dezake dramatikoenetakoa dela. Eta Errenteriako Udal gisa defendatzen dituzten interesak direla eta uste zuen ahalegin bat egin behar zuela eta bere ikuspuntutik ekarpenen bat egiten saiatu. Bigarren puntuari dagokionez, Epaitegiak kontua etenda uzteko erabakia hatsa hartzeko hastia ematen die, gutxienez prozedura geratu delako eta horregatik pozten eta familiari elkartasuna adierazi. Hala ere, uste du urrats bat gehiago eman beharko litzakeela eta egin beharrekoak egin konponbidea bilatzeko. Berak izan dituen elkarrizketen baitan proposamen alternatibo bat egitera ausartzen da, hirugarren puntua ordezkatuko lukeena eta zinegotziek eta Idazkariak horren berri dute. Honek honela dio: “Errenteriako udalak Kutxabankeko zuzendaritzari eskatzen dio Kutxabank, Udala eta kaltetuen artean lan-talde misto bat osa dezan bi aldeentzako irtenbide egoki bat bilatzearren, bien bitartean kaleratze-prozesua etenda geratuko litzakeelarik”. Hau xede bakar batekin egiten du, izan ere, sistema zein txarra den salatu eta honek sortzen duen arazoez gain, uste du saiatu behar dela Udalak konponbide bat aurkitzen, hain justu hain errealitate gogora eta pisua duen familiari soluziobide bat aurkitzeko. Uste du Alkateak babesturiko lan-esparru hau, kasu honetan Udala ordezkatuz, nahikoa garantia izatea akordio batera iritsi ahal izateko eta irtenbidea aurkitzea adin nagusiko bi pertsona horiei eta gainontzekoei. Berak proposamen hori egin die gainontzeko bozeramaileei, gisa horretan bere ondar apurra jartzen saiatu delarik.

ello y seguro no llega para este caso pero si que de las conversaciones que ha tenido, ha sacado una conclusión y es que analizando el caso en particular tanto en su origen como en sus consecuencias es de lo más dramático. Desde su punto de vista el Ayuntamiento de Errenteria debe hacer un esfuerzo. El segundo punto, el de la suspensión por parte del Juzgado es motivo de respiro, por lo menos se ha paralizado el procedimiento y por ello se alegran y se solidarizan con la familia pero había que dar un paso más, y mojarse en buscar una solución. En función de las conversaciones se atreve a hacer una propuesta alternativa que ya conocen los portavoces y el Secretario que sustituiría el punto tercero que reza: “ El Ayuntamiento de Errenteria solicita a la dirección de Kutxabank la creación de un grupo de trabajo mixto formado por Kutxabank, Ayutamiento y afectados, a fin de buscar una salida satisfactoria para ambas partes entendiendo que quedaría en suspenso mientras tanto el proceso de desahucio”. Esto con un único objetivo, que mas allá de denunciar lo mal que está el sistema y la problemática que genere, hay que intentar de manera constructiva desde el Ayuntamiento buscar una solución en concreto para esta familia que tiene una realidad tan dura y tan pesada. Espera que en ese ámbito de trabajo tutelado por la figura del Alcalde en este caso en representación del Ayuntamiento sea garantía suficiente para que se pueda llegar a un acuerdo y se solucione tanto la salida de esas dos personas mayores como lo que resta, los picos que no son tan picos. Esa es su propuesta que han lanzado al resto de portavoces intentando así aportar su granito de arena.

* Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du bere taldeak aurreko osoko bilkuran esan zuela zer pentsatzen zuen arazo

*Interviene el Sr. Rodriguez (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) diciendo que su grupo en el Pleno anterior ya manifestó lo que pensaban sobre



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

honetaz. Orain sostengatzen dute EAJk planteatutakoa, eta eurek erabakitzeko ahalmena duten lekuetan laguntzeko eta kolaboratzeko prest daude, denek ezagutzen dituzten beste tokietan egiten ari diren bezala. Horrela, famili honekin eta egoera hori jasaten dutenekin daude.

esto, apoyan lo planteado por el PNV. En estos temas allá donde ellos tengan poder de decisión, están por ayudar y colaborar como se está haciendo en otros estamentos. Están con la familia y con aquellos que estén en esta situación.

* Diez jaunak (O.E. BILDU) esan du une hauetan kaleratze-aferaren inguruan denak daudela sentibera antzean. Izan ere, iragan larunbatean atera baitzen prentsan, era agerian lehen aldiz, Kutxa eta banku zenbaitetako buruak irabazten zuten soldatak eta ordainsariak. Bateren bat ezagutzera ematearren, Kutxako presidente Xabier Iturbek 383.000 € eramaten ditu. BBKko presidente Mario Fernandezek, berriz, 514.000 €. Eta artikulua idatzi zuen kazetariak esaten zuen hori ez zela ezer Estatuko gainontzekoek irabazten zutenekin konparatuz gero. Esaterako, Bankiako presidente Rodriguez Ratok 2.300.000 € inguru irabazten ditu eta Santander bankuko Emilio Botinek, ostera, 3.800.000 €. Hortxe daude datuak -dio-, hotzak dira eta edozeinek aztertu eta balora ditzake une horietan lehen aitaturiko familia horiek bizitzen ari direnekin. Gainera, kontua pittin bat hurbiltzearren, Kutxako kontseilariek 423 € inguru kobratzen zuten sesioko, eta jakinik urtean 50 sesio egiten dituztela, kontseilari bakoitzak sesioetara joateagatik 24.000 € eramaten ditu. Bere irudiko datu esanguratsua da lurralde honetako hiru kutxen artean 2011n 245 milioi euroko irabazia izan zutelako, eta datorren urterako, hiru kaxak bat eginda, irabazia hirukoiztea aurreikusten dutelako, 2015. urterako 810 milioi euro hain zuzen ere. Beste albiste bat ere atera zen, eta hori gutxienez bihotz-altxagarria izan zen, izan ere, Nafarroako Berriozar herrian, hainbat aste mobilizazioetan ibili ondoren, hipotekak kalteturiko lagunen plataformak erdietsi zuen gaur ikusten ari diren famili baten antzeko kaleratze-kasu bat

*Interviene el Sr. Díez (O.E. BILDU) manifestando que en este momento todos estan sensibles con el tema de los desahucios. El sábado salía por primera vez en prensa información que hacía más visible los salarios y los emolumentos que se llevaban algunos presidentes de Kutxa y bancos. Por señalar alguna, Xabier Iturbe, el Presidente de Kutxa se embolsa 383.000 €. Mario Fernandez, Presidente del BBK se embolsa 514.900 € y el periodista que escribió el artículo decía que esto no era nada comparando con lo que ganaban en el resto del Estado, Rodrigo Rato el Presidente de Bankia que gana alrededor de 2.300.000 € y Emilio Botín, el presidente del Santander, 3.800.000 €. Los datos están ahí, son fríos y cualquiera puede analizarlos y valorar en el momento en el que están viviendo estas familias como suena leer estos datos. Datos de los consejeros de la Kutxa, por acercarnos un poco a lo que a nosotros nos toca, cobraban alrededor de 423 € por asistencia a las sesiones, tiene una 50 sesiones anuales, lo que supone 24.000 € por consejero por asistencia a las reuniones. Como dato significativo, las tres cajas que nos corresponden a nosotros tenían un beneficio en el 2011 de 245 millones y la previsión para el siguiente con la fusión de las tres cajas, sería esta cifra triplicada, unos 810 millones para el 2015. Había otra noticia al menos alentadora, en el pueblo de Berrriozar en Navarra, después de varias semanas de movilizaciones la plataforma de personas afectadas por la hipoteca habían conseguido que una familia que tenía también un tema parecido al que nos toca hoy de cerca

geldiaraztea. Horrela, Hiru haur dituzten Juan Arevalok y Julia Orellanak, herriaren laguntzarekin, lortu ahal izan dute Santander bankua bezalako erakunde bati kaleratzea geldiarazi eta kaltetuekin akordio batera iristea. Bere aburuz, hasiera batean garaipena da, baina, uste du, neurriak ez badira hartzen kaleratze-prozesua berriro abian jar daitekeela. Hortaz, bada, uste du hau lehen garaipen bat izan dela eta ez dela azkena izango. Gure herriari dagokionez, berriz, Mari Carmeni eta familiari euren elkartasuna adierazi nahi diete, izan ere, ikusten ari baitira ehunka-milaka familia txirotasunera bultzatzen ari direla. Haren esanetan, begien bistakoa da kontu hau oinarrizko eskubideena dela, kontu sozial eta ekonomikoa dela. Uste du, gainera, egoera honek, administraziotik hasita, denok kaltetzen dituela. Kaleratutako pertsonak laguntza eske administraziora etorriko direlako eta hori berak normala ikusten du, hain zuzen denek gauza bera egingo luketelako eta geratzen zaien bizian urtero alokairuarentzako, liburuentzako, etab. etorriz jarraituko dutelako. Denek halaxe egingo luketelako, eta ondorioz, uste du denek galduan aterako direla. Gaineratu duenez, iragan azaroko osoko bilkuran, gehiengoz, adierazpen instituzional bat onartu zuten indarrean dagoen araudia aldatzeko asmoarekin, hain justu ordainetan ordainketa arautzeko eta kaleratzeak saihesteko hartu beharreko neurriak hartzeko. Onespen hura Ekonomia Ministeriora, Justizia Ministeriora eta Espainiako Kongresu eta Senatuko parlamentari-taldeei bidali zitzaien, baita Euskal Erkidegoko legebiltzarkideei ere. Horrela, uste du egia dela Ekonomia Ministeriotik konponbidea bilatzen saiatzen ari diren ahots zenbait entzun direla. Era berean, Eusko Jaurlaritzak ere zerbait esan duela, baina kontua da oraindik dauden tokian daudela eta bizkitartean familiak, nolabait esatearren, amildegitik jausteko arriskuan daudela aldaketak ez direlako ematen ari. Hortaz, talde gisa Espainiako gobernuari eskatzen diote egoera injustu horrekin

habían conseguido la paralización del desahucio. Juan Arévalo y Julia Orellana que tienen tres hijos y con la ayuda del pueblo han podido conseguir que una entidad financiera como puede ser el Banco Santander haya paralizado el desahucio y haya llegado a un acuerdo con las personas afectadas. En principio es una victoria pírrica porque este proceso de desalojo puede volver a ponerse en marcha si no se toman medidas. En principio ha sido una primera victoria importante pero no la última. Respecto a nuestro municipio, en el caso de Mari Carmen quieren mostrar su solidaridad con la familia y están viendo que se está sentenciando a centenares de miles de familias a la pobreza. Evidentemente esto es una cuestión de derechos fundamentales, es una cuestión social y es una cuestión económica. Esta situación nos perjudica a todos y a todas, evidentemente empezando por la administración. Las personas desahuciadas van a acudir a la administración a pedir ayuda y es normal, es lo que haríamos todos y todas y estarán el resto de su vida acudiendo cada año a pedir ayudas sociales para el alquiler, para los libros… normal, todos lo haríamos, por lo tanto aquí saldremos perdiendo todos. En el Pleno de noviembre aprobaron por mayoría una declaración institucional para modificar la normativa vigente con el fin de regular la dación en pago y adoptar medidas necesarias para evitar los desahucios. Esta aprobación se trasladó al Ministerio de Economía, al Ministerio de Justicia a los Grupos Parlamentarios del Senado y Congreso Español, así como a los parlamentarios del Parlamento Vasco. Es verdad que se oyen algunas voces como desde el Ministerio de Economía que están intentando buscar soluciones. También es verdad que desde el Gobierno Vasco se oyen voces respecto a que hay que hacer algo pero la verdad es que estamos todavía aquí con familias en el precipicio por decirlo de alguna manera, ven que todavía no hay cambios. Como grupo quieren instar al Gobierno Español a

amaitzearren, giza eta gizarte drama horrekin alegia, benetako irtenbide bat eskaintzeko. Horregatik sostengatuko dute Errenteriako Ezkerrak aurkezturiko mozioa. Era berean, Eusko Alderdi Jeltzaleko kideari esan nahi dio arazoaren errora joan behar dela, eta une honetan arazoaren erroa Kutxan bertan dagoela. Euren aburuz Kutxak zeukan eginkizun sozialetik aldetzen ari da. Euren nahia da, Kutxarekin hitz egitera joaten denean, argi uztea Kutxaren eginkizun soziala gauza guztien gainetik dagoela.

que ofrezca una salida real para acabar con esta situación injusta y con este drama humano y social y por eso apoyarán la moción presentada por Errenteriako Ezkerra. También quieren decirle a la compañera del Partido Nacionalista Vasco que piensan que hay que ir a la raiz del problema y que en este momento la raiz del problema se encuentra en la propia Kutxa y el concepto de social que tiene la propia Kutxa. Piensan que Kutxa se puede estar desviando de los objetivos que se habían marcado de hacer un servicio de labor social. Quieren que cuando vayan a hablar con Kutxa se deje claro que su labor social tiene que estar por encima de todo.

* Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) esan du berak ez duela inolako arazorik hirugarren puntua aldatzeko.

*Interviene el Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra) diciendo que por su parte no hay ningún problema en que se modifique el punto tercero.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) esan du Udala, eta bera haren ordezkari gisa, kaleratze-arazo hori konpontzen saiatzeko edo, batzorde misto batean parte hartzeko izendatua izan dela. Gaineratu duenez, ahalegin guztiak egingo ditu batzorde misto horretatik emaitza positibo atera dadin eta kaleratzea gerta ez dadin lortzeko.

*Interviene el Sr. Alcalde (O.E. BILDU) para comentar que se nombra al Ayuntamiento en una comisión mixta y a él como representante del Ayuntamiento como Alcalde para participar en esa comisión mixta para buscar una solución a este problema del desahucio. Manifiesta que hará todo lo posible para que de esa comisión mixta salga un resultado positivo y conseguir que no se produzca el desahucio.

Horiek bukatutakoan.

*Finalizadas las intervenciones.

Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) proposaturiko ondorengo aldaketak sartu dira:

- **Kentzea** mozioaren bigarren puntua.
- **Kentzea, halaber**, **laugarren puntuan** ondorengo aipamena: “Donostiako 8 zk.eko Donostiako 8 zenbakiko Lehen Auzialdiko

Incluídas las modificaciones propuestas por el Sr. Ferradas (Errenteriako Ezkerra) en el siguiente sentido:

- **La supresión del punto segundo** de la moción.
- **la supresión en el punto cuarto** de la referencia al traslado del acuerdo al Juzgado de Primera Instancia nº 8 de Donostia puesto que se ha

Epaitegiari jakinaraztea", zeren eta Epaitegi horrek interesdunei jakinarazi dielako tramitazioa eten dela doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea aitortu edo ukatzen zaien arte.

Ondoren, Peña andreak (EAJ/PNV) proposaturiko ondoko aldaketak sartu dira:

- **Mozioaren 3. puntua** ondorengoarekin ordezkatzea:
"Errenteriako udalak Kutxabankeko zuzendaritzari eskatzen dio Kutxabank, Udala eta kaltetuen artean lan-talde misto bat osa dezan bi aldeentzako irtenbide egoki bat bilatzearren, bien bitartean kaleratze-prozesua etenda geratuko litzakeelarik".

Udalbatzak, aho batez,

**E R A B A K I D U**

Onartzea Errenteriako Ezkerrak Mari Carmen Marquez familiaren kaleratzea gelditzeari buruzko mozioa, azkenean ondorengo eran idatzita geratu delarik:

"Otsailaren 7an Mari Carmen Marquezi Donostiako 8 zenbakiko Lehen Auzialdiko Epaitegiaren erregu bat jakinarazi zitzaion. Horren arabera hilabeteko epea ematen zitzaion bere gurasoen ohiko etxebizitza dena boluntarioki libre utz zezaten, eta, hori egin ezean, "indar publikoak" erabiliko direla adierazi zitzaion".

Egoera horren aurrean, ERRENTERIAKO EZKERRA udal taldeak Udalbatzari proposatzen dio ondorengo

comunicado por parte de este Juzgado a las personas interesadas la suspensión del trámite hasta que se reconozca o deniegue el derecho de asistencia jurídica gratuita.

Incluídas las modificaciones propuestas por la Sra. Peña (EAJ/PNV) en el siguiente sentido:

**- la sustitución del punto número 3** de la moción por el siguiente:
"El ayuntamiento de Errenteria solicita a la dirección de Kutxabank la creación de un grupo de trabajo mixto formado por Kutxabank, Ayuntamientno y afectados a fin de buscar una salida satisfactoria para ambas partes, entendiendo que quedaría en suspenso mientras tanto el proceso de desahucio."

El Pleno de la Corporación por unanimidad,

**A C U E R D A**

Aprobar la moción presentada por Errenteriako Ezkerra pidiendo la paralización del desahucio de la familia de Mari Carmen Márquez quedando redactada en los siguientes terminos:

El pasado 7 de febrero a Mari Carmen Márquez le fue notificado un exhorto del Juzgado de Primera Instancia Nº8 de Donostia, por el que se le establecía el plazo de un mes para desalojar de formar voluntaria la vivienda habitual de los padres de la citada persona. Caso contrario se señala el recurso a la "fuerza pública".

Ante esta situación el grupo municipal de ERRENTERIAKO EZKERRA propone al Pleno del Ayuntamiento de Errenteria el siguiente


C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

**AKORDIOA**

1. Errenteriako Udalak elkartasuna adierazi nahi die Mari Carmen Marquez eta kaleratuak izateko arriskuan dauden bere senitartekoei.

2. Errenteriako udalak Kutxabankeko zuzendaritzari eskatzen dio Kutxabank, Udala eta kaltetuen artean lan-talde misto bat osa dezan bi aldeentzako irtenbide egoki bat bilatzearren, bien bitartean kaleratze-prozesua etenda geratuko litzakeelarik.

3. Erabaki hauen berri ematea Kutxabankeko zuzendaritzari.

* “Stop Desahucios” taldeko partaide bat mintzatu da jende artetik eta esan du Mari Carmenen kasua ateratzen ari bada, espresio publikoa eman zaiolako, mobilizazioak eman direlako, etab. Eta horrelaxe izaten jarraitu nahi dute. Gaineratu duenez, Oreretan bizi den beste pertsona bati etxebizitza bahitu diote eta enkantean atera da, bere garaian ezagutzera emango dutena. Uste du hazten joango den arazo bat dela, kasu honetan jendeak “Stop Desahucios” taldearen sostengua baduela hartu duena. Bere aburuz arazoak hobeto ikusten dira zehatzak direnean eta ez abstraktuan. Bere ustez etxebizitzaren arazoari denen artean konponbide bat bilatu behar zaio, eta orain artean bilatu ez bazaio nahi izan ez delako da. Horrela, bere iritziz, PSOE eta PPk etxebizitzaren aferarekin askozaz gehiago egin zezaketen. Edonola ere, berak ez du kritikatzeko asmorik, aitzitik esan nahi du mobilizazioak izango direla eta sinadurak jasotzen ari direla Kutxa Mari Carmenen kasu zehatzarekin akordio batera irits dadin. Halaber, esan du herritarrek mobilizatzeko

**ACUERDO**

1.- El Ayuntamiento de Errenteria muestra su solidaridad con Mari Carmen Márquez y su familia amenazada de desahucio.

2.- El ayuntamiento de Errenteria solicita a la dirección de Kutxabank la creación de un grupo de trabajo mixto formado por Kutxabank, Ayuntamientno y afectados a fin de buscar una salida satisfactoria para ambas partes, entendiendo que quedaría en suspenso mientras tanto el proceso de desahucio.

3.- Trasladar estos acuerdos a la dirección de Kutxabank.

*Interviene un miembro del público perteneciente a Stop Desahucios manifestando que el caso de Mari Carmen está saliendo a la luz, sobre todo porque se le ha dado expresión pública, ha habido movilizaciones … y quieren que eso siga siendo así. Comenta que hay también otra persona residente en Orereta a la que se le ha embargado el piso y ha salido a subasta, en su momento se dará a conocer. Es un problema que cada vez va a ir a más, en este caso se ha focalizado por parte de la gente que está en el grupo de apoyo en Stop Desahucios. Creen que los problemas se visualizan mejor cuando son mas concretos y no en abstracto. En este sentido considera que al problema de la vivienda hay que buscarle una solución entre todo el mundo y considera que hasta ahora no se ha buscado porque no se ha querido, cree que el PSOE y el PP podrían haber hecho mucho mas con el tema de la vivienda. En todo caso el no va a criticar, si decir que, va a haber movilizaciones, que se están recogiendo firmas para que se llegue a un acuerdo con Kutxa en



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

asmoa dutela, bere garaian jakinaraziko dituztenak. Hortaz, uste du ondo egongo litzakeela alderdi politikoek mobilizazio horiek sostengatzea.

el tema concreto de Mari Carmen. Existen también diversas iniciativas de movilizaciones ciudadanas previstas que en su tiempo se comunicarán, considera que estaría bien que en su momento los grupos políticos apoyaran esas movilizaciones

**7. Galdera-eskariak.**

--------------------

**7.- Ruegos y preguntas.**

--------------------

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 19:20 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 19:20 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al ______ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus